

Trantsizio inkestak



MIKEL OTERO
DIPUTATUA

Nahiz eta jakina izan inkestak ez direla errealitatearen isla zehatza, interesgarria da bistadizo bat ematea, beti eskaintzen baitigute gai zehatzekiko tenperatura sozialaren arrastoren bat. Are garrantzitsuagoak dira, gai zehatzetan sartuegiak edo katramilatuak egoteagatik, perspektiba galtzeko arriskuan gaudenean. Horregatik, eskertzen dut EITBren azken inkestak trantsizio ekologikoari buruzko atal berezitu bat izatea Hego Euskal Herri mailan. Bakoi-tzak bere azpimarrak izango baditu ere, utzidazue nire arreta gehien piztu duten datuak erreparatzeko.

Berri onekin hasiko naiz: pozgarria da jakitea gurean jende gehiago dagoela hiriguneetako emisio gutxiko eremuen alde, kontra baino. Gehiago direla koteen espazioaren kaltetan oinezkoen guneak handitu behar direla uste dutenak. Edo askoz gehiago direla bidegorri sarea handitu behar direla uste dutenak. Horrek iradokitzen du trantsizio politikak uste genuena baino onarpen zabalagoa izan dezaketela. Beraz, ausartak izateko unea iritsi da.

Bestalde, badira positiboak diren baina erpin kontraesankorrak dituzten datuak. Inkestari erantzuten dion ia %80k esan du autosufizientzia energetikoa bultzatu behar dela. Sekulako albistea da hori. Kontrara, alboan zentral fotovoltai-

ko edo eoliko bat edukitzeko aldekotasuna %67 eta %53ra jaisten da, hurrenez hurren (deigarria da Nafarroan, eoliko askoko lurraldean, aldekotasuna ia %60ra iristen dela). Kontuan hartuta desazkunde energetiko handia izanda ere (adibidez %50ekoa), desio den autosufizientzia lortzeko megawatt berriztagarri nahikotxo instalatu beharko liratekeela (kanpoko gasa etxean erretzea ez baita autosufizientzia izatea), bietako bat: edo ez da nahikoa argitu autosufizientzia lortzeak zer suposatzen duen, edo, bai, argitu da, baina hainbatek aldemeneko herriaren edo herrialdearen kontura lortu nahi du autosufizientzia hori.

Badakit politagoa dela autosufizientziaren desioaz hitz egitea, kilo eta megawattez hitz egitea baino. Elektrizitatea erabiltzerakoan, ordea, eskatzen ditugun megawattak eta sortzen direnak bat ez badatoz, *kaput*.

Azkenik, berri txarrena: nahiz eta azken aurreko inkestan jendeak arazo ekologikoak epe ertaineko hiru arazo larrienen artean kokatu, oraingoan inkestatuen %2,1ek soilik adierazi du ingurumenarena dela konpondu beharreko arazo nagusia. Esan beharrik ez dago epe ertainean ingurumena/ekologia/klima arazo larriena bihurtu ez dadin, gaur lehentasunez heldu beharreko kontua dela. ●

Gazaren aldeko martxa



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Ekainaren 12an munduko bazter guztietatik –Euskal Herritik ere– heldutako ehunka pertsona batuko dira Egiptoko El Arish hirian, hortik Rafahraino abiatzeko, Gazaren aldeko martxa globalean. Israel palestinar herriaren aurka egiten ari den genozidioa salatuko dute, baita korridore humanitario bat ireki dadin exijituko ere. Tamalez, nahi bai, baina batzuek ezin izango dugu parte hartu. Hala ere, hemendik gure babesa bidaliko diegu hemen antolatu diren martxatan parte hartuz edo beren protesta-
ren oihartzuna lau haizetara zabalduz.

Mobilizazio horiek gure kaleetan gero eta ugariagoak diren Palestina-

ren aldeko ekitaldiei gehituko zaizkie, herritarrok erabaki baitugu ezin dugula besoak gurutzaturik gelditu gure gobernu, administrazio eta enpresa askoren kolaborazionismo edota isiltasun konplizearen aurrean. Horregatik, zenbaitetan irudien kru-deltasunak eragiten digun etsipenak bihotza uzurtzen badigu ere, eta ezer mugiarazten ez dugula sentitu arren, gure amorrua eta haserrea plazaratzen jarraitu behar dugu, eta abestiak dioenez, *“Hik bultza gogor hortikan ta bultza nik hemendikan. Ikusiko den nola-nola laister eroriko dan!”*. Herriak soilik egingo du. ●